



## **AKTA**

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK** telematikoki egindako ohiko bilkurarena,

### **2021eko maiatzaren 5koa**

Organoaren bilkura telematikoa egin da, bideodei bidez, **13:10ak** direnean, eta jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ohiko bilkura egiteko, lehenengo deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarreko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da aldi baterako idazkari lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzordekideak bideokonferentzia saiora konektatu dira:

**Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)**  
**Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)**  
**Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)**  
**Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)**  
**Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)**

Ez da bertaratu eta ezin etorria justifikatu du: **Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)**

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gainera, Kuadrillako teknikari gisa Arbaizagoitia andrea telematikoki bertaratu da, bere arloko puntuak azaltzeko.

Bilkura modu telematikoan ezarri da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako bigarreanean ezarritakoaren arabera. Horrek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, zehazki 46. artikuluko 3. atalean, organo honen bilkurak telematikoki egitea ahalbidetzeko, aintzat hartuta Covid-19ak egun sortutako ezohiko osasun-egoera.

Kuadrillako presidente andreak, **13:10ean**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, **lehenengo deialdian**, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Eskualdeei buruzko Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c)



artikuluari lotuta. Presidente andreak hasteko agindua eman du, aztergaien zerrendari jarraituz.

### **1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2021eko apirilaren 21eko bilkuraren akta onestea.

### **2.- ANFIBIOAK ERRESKATATZEKO PROGRAMA.**

Naturayala Aiarako Kuadrillako udalerrietako udako igerilekuetako anfibioak erreskatatzeko programa berri baten irismena azaldu du Arbaizagoitia andreak, anfibio horiek udako igerilekuetan egon ordez, inguruko eremuetan bizirik irauteko. Proiektu honen helburua kuadrillako anfibioen populazioa babestea da, atzerakada nabarmenean baitago. Asiako liztor-erregina harrapatzeko tranpak jarrita joan den apirilean abiatutako ingurumen-boluntariotzako sarearen barruan kokatzen da proiektu hau.

Teknikak proiektuaren funtsezko ezaugarriak azaltzen ditu, Arabako Foru Aldundiarekin hitz egin da eta honek ere proiektuan parte hartzea eta beste kuadrilla batzuetara eramatea aurreikusten da. Aldundiaren laguntza izango da programan, eta langileak eta materialak jarriko ditu. Materialak erosi beharko dira.

Igerilekuak hustu aurretik, garrantzitsua da jakinaraztea erreskatea egiteko.

Proiektua garatzeko materialak erostea aurreikusten da eta kopurua 1.200,00 € ingurukoa izango da.

### **3.- “AIARA ZIRKULARRA” ZERBITZUAREN IRUDI BERRIAREN AURKEZPENA.**

Arbaizagoitia andreak azaldu du hondakinak biltzeko zerbitzuaren esleipendun den CESPak proposamen bat prestatu duela zerbitzua sustatzeko, “AIARA ZIRKULARRA” arloaren irudi eta eslogan berri bat erantsita. Proposamena pantailan agertzen da eta zirkularitatearen arloan lantzen ari diren proiektuekiko justifikazioa eta lotura azaltzen dira. Proposamenean proiektuari lotutako ekintzak jasota daude.

### **4.- INGURUMEN SAILEKO ESLEIPEN-PROPOSAMENAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**



**Gai organikoaren kudeaketa deszentralizatuari buruzko prestakuntza eta aholkularitza zerbitzua esleitzea.**

Arbaizagoitia andreak azaldu du zenbaterainoko garrantzia duten prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzua emateko erregistratu diren proposamenek, Aiaraldeko konpost-ontzien sarea handitzeko eta kuadrillaren barruan konpostaje deszentralizatuko eragiketa berriak zehazteko. Eskatutako aurrekontuak eta egindako txostena azaldu dira.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU:**

**IKUSI DA** ingurumen teknikariak egindako txostena.

**IKUSI DA** 1720 226999 partidan kreditu nahikoa dagoela.

**ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA.-** Onestea Aiaraldeko konpost-ontzien sarea handitzeko eta kuadrilla barruan konposta egiteko eragiketa deszentralizatu berriak definitzeko prestakuntza eta aholkularitza zerbitzuaren prestazioaren adjudikazioa JOSEBA SANCHEZ ARIZMENDIARRETA (LUAR INGURUMENA) (IFZ: 72748614M) enpresari SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAROGEITA HAMABOST, KOMA HOGEITA HAMAIIKA ZENTIMOKo kopuruan (6.995,31 €) BEZ barne.

**Proposamena: Garbiguneko etxolan metalezko isurki bat jartzeko adjudikazioaren proposamena.**

Arloko teknikariak azaldu du berrerabiltzeko etxola instalatu ondoren, egitura metaliko bat jarri behar dela, egitura hori jarri den zolan integratzeko.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU:**

**IKUSI DA** berrerabiltzeko etxolan egitura metaliko bat sartzeko beharra.

**IKUSI DA** 1720 226999 partidan kreditu nahikoa dagoela.

**ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA.-** Torlojuen bidez jarriko den aluminio lakatuko 16,72 metro luze den faldoi zuriaren hornidura eta instalazioaren esleipena onestea, **ATLAS NORTE SL** (IFK: B 95470571) enpresari, aurkeztutako aurrekontuaren arabera, alegia, MILA ETA HIRUROGEI EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMO (1.060,11 €), BEZ barne.



## **5.- AFA-REN PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZEN ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ghiro jaunak jakinarazi du ikastaroak definitzen ari direla, eta oraindik ere ez dela ikastaroren bat jaso. Aurkezteko epea maiatzaren 7an, ostiralean, bukatuko da.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

**LEHENENGOA.-** Laudio Hazi, Amurrio Bidean eta ADR Zabaiak aurkeztutako ikastaroen arabera, AFA 2021ri laguntza eskatzea onartu da.

## **6.- AFA-KO TURISMOAN INBERTITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA ONESTEA, HALA BADAGOKIO.**

Ghiro jaunak adierazi du eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 7an bukatuko dela. Laguntzak eskatzeko bi inbertsio proposatu dira:

-Txakolinaren Ibilbidearen seinaleak berritzea.

-Standerako sustapen-materiala, bi roll up, totemerako lau kubo eta bi olana, bata atzekoa eta bestea mahairako.

Alamillo jaunak proposatu du eskualdeko baliabide turistikoen seinaleak aztertu behar direla, aurrekontua eska daitekeela eta laguntza honetan edo beste batzuetan sartzeko aukera aztertu.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

**LEHENENGOA.-** AFA 2021i Turismorako inbertsiorako laguntza-eskaera onartu da honetarako:

-Txakolinaren Ibilbidearen seinaleak berritzea.

-Standerako sustapen-materiala, bi roll up, totemerako lau kubo eta bi olana, bata atzekoa eta bestea mahairako.

## **7.- AFAREN KONTRATAZIO-ZENTRALARI ATXIKITZEKO HITZARMENA.**



Honekin batera II. eta III. ERANSKINETAN daude oinarriei eta hitzarmenaren zirriborroari dagozkien agiriak. Escuza jaunak jakinarazi du bere udala dagoeneko atxikita dagoela.

Informazioa eta eztabaida bukatuta, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

**LEHENENGOA.** – Onestea AFaren Kontratazio Zentralari atxikitzea, Arabako Foru Aldundiak bidalitako hitzarmenaren arabera.

## **8.- “LA ROBLEDA DE LOS SUEÑOS” ALDIZKARIAN PUBLIZITATEA EGITEKO PROPOSAMENA.**

Egindako proposamenaren berri eman da, interesgarritzat jotzen bada eta etorkizunean egingo diren publizitate sustapenen balorazioa egiten denean hura aztertu eta barne hartzeko.

Azterketa egin eta zalantzak eta azalpenak argitu ondoren, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:

**LEHENENGOA.-** Lankidetzat honen balorazioa eta beste proposamen batzuk onestea.

Puntu honetara iritsita, kuadrillaburuak azaldu du gai zerrendan beste puntu bat sartzeko premia dagoela. Kontu hau aho batez onartu da, eta honako hau da:

-Baskularen lizitazioari Bascula Rioja SL enpresak aurkeztutako errekurtsioa.

## **9.- BASCULA RIOJA SL ENPRESAK BASKULAREN LIZITAZIOARI AURKEZTUTAKO ERREKURTSIOA.**

Ghiro jaunak enpresa lizitatzailerak erreklamatzeko dituen puntuak azaldu ditu:



- 1- Lizitazio-plataforman Bascula Rioja SL agertzen da esleipendun eta Siguores de Pavon SL ziurtagirian.
- 2- Esleipendunaren helburu soziala ez dagokio lizitazioaren xedeari.
- 3- DEUCean jaso behar dira kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko eskaerak, 90.000,00 euroko kopurukoak.

Ghiro jaunak puntu bakoitzaren berri eman du:

- 1- Kontratatzailearen profilaren iragarkian akatsa gertatu da adjudikazioduna aukeratzean, baina izenean bakarrik. Bestaldetik, kopuruak eta epeak zuzenak ziren, bai eta egiaztagiriak ere. Akatsa zuzendu da.
- 2- Kasu horretan enpresa adjudikaziodunak **“kaudimena kanpoko bitartekoekin integratzen du”**, kontratazio-mahaiaren hirugarren aktan GEPESA enpresarekin jasotzen den bezala. Kasu honetan, egia da Sucesores de Pavon enpresak ez duela betetzen bere helburu soziala lizitazioaren xedeari bat etorri behar duela, eta GEPESA enpresak, berriz, hala egiten badu.
- 3- DEUC berrikusi da, bai Pavongo Oinordekoena, bai GEPESArena, eta egia da ez dutela jasotzen kontratazio agirietan aurreikusitako baldintza hori.

Ghiro jaunak azaldu du puntu hori Jon Anda de Ekain abokatuarekin kontsultatu dela, eta biok bat gatoz akats hori zuzendu egin behar zela Gaitasun eta Kaudimenaren A gutun-azala ireki ondoren, gainerako gutun-azalak ireki aurretik. Une hartan zuzentzeko eskatu ez zitzaionez, orain hiru eguneko epea eman beharko litzaioke hori konpontzeko.

Azterketa egin eta zalantzak eta azalpenak argitu ondoren, aho batez **ERABAKI DA** hartzea **AKORDIO HAU**:



**LEHENENGOA.**– Onestea Bascula Rioja SLk aurkeztutako errekurtsuaren izapidetzea, maiatzaren 4ko 269 zenbakiko sarrera duela.

**BIGARRENA.**– Kontratzailearen profileen jasotako informazioa zuzentzeko erreklamazioa egin da eta uste da akatsa dela eta horrek ez diola eragiten lizitazio-prozedurari, eta, beraz, ez du bestelako ondorio handirik.

**HIRUGARRENA.**– Enpresa esleipendunak administrazio-agirietako I. ERANSKINEko “Enpresa Gaikuntza” 13. puntuan (14. eta 33. klausulak) jasotako baldintza betetzen du. “Enpresa-gaikuntza enpresaren helburu soziala eta hau kontratuaren xedearekin bat datorrela frogatuta egiaztatuko da”.

Izan ere, baldintza hori GEPESA enpresak betetzen du, eta berarekin esleipendunak “kaudimena kanpoko bitartekoekin integrazioa” egin du.

**LAUGARRENA.**– Sucesores de Pavon SLk aurkeztutako Gaitasun eta Kaudimen agiriak berriro aztertu dira eta dokumenturen bat falta dela ikusita, eskatzea Seguidores de Pavon SLri Gaitasun eta Kaudimenari buruzko gutunazalean aurkeztutako agiriak 3 eguneko epean zuzentzea.

**BOSGARRENA.**– Hiru eguneko epe hori igaro ondoren dokumentazioa aurkezten ez bada, Sucesores de Pavon SLk aurkeztutako eskaintza baztertuko da eta kontratazio-mahaiari berriz biltzeko eskatuko zaio, esleipen-proposamen berri bat egiteko.

**SEIGARRENA.**– Hiru eguneko epe hori igarota dokumentazio hori aurkezten bada, esleipen-prozedurarekin jarraituko da, eta dokumentazioa eta bermeak entregatzeko epeak berriz hasiko dira.

**ZAZPIGARRENA.**– Erabaki hau enpresa interesdunei jakinaraztea.



## **10.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Ez da ezer aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **14:25ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, aldi baterako idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA: ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.**

**KUADRILLAKO ALDI BATERAKO IDAZKARIA: GIANFRANCO GHIRO ALONSO**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**